



EUSKADIKO 1. OLINPIADA MATEMATIKOA : 2002-03

D.B.H 2. MAILA

1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- Zenbakiak, 1-etik abiatuz, lau zutabetan kokatzen dira, irudiaren arabera

Zein zutabetan eta zein lerrotan agertuko da 2003 zenbakia?

| Lerroa | Zutabea | | | |
|--------|---------|-----|----|----|
| | A | B | C | D |
| 1.a | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 2.a | 8 | 7 | 6 | 5 |
| 3.a | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 4.a | 16 | 15 | 14 | 13 |
| 5.a | 17 | ... | | |


2.-Zenbaki bat bai eskerretik eskubira eta bai eskubitik ezkerrera irakurrita berbera bada, zenbaki kapikua deritzo. Adibidez 2002 zenbaki kapikua da. Zenbat zenbaki kapikuak aurki daitezke 1-etik 10.000-rako tartean?

3.- Itxuraz 9 bola antzekoak dira, baina batak besteek baino pisu gehiago du. Bakarrik bi besotako balantza badugu, zein da pisatu behar dugu aldi kopuru txikiena bola astunena identifikatzeko?



Eta 27 bola izango bagenitu? ¿ eta 81?.Asma dezakezu ondorio orokor bat?

4.- Beheko irudiko karratu bakoitzean, hainbat zirkulu agertzen dira, bat lehenengoan, lau bigarrenea, bederatzi hirugarrenean eta hamasei laugarrenean. Kalkula ezazu, kasu bakoitzean, karratuaren azalera eta zirkulu guztien azalera osoaren arteko erlazioa. 10x10 zirkulu izango bagenitu, zein izango litzateke erlazio hori? Zergatik?



5.- Zenbat karratu kontatu dezakezu beheko irudian?

